

4. Giza harremanen arloko euskerazko eta gaztelerazko berben etimologiak

Jabier Goitia Blanco



4.1. Nor / Perfil

a) Ikasketak / Estudios / Studies

- Ingeniaritzan Lizentziatua.
- Geografian Lizentziatua.
- Kuaternarioan Masterduna.

b) Eskarmentua / Experiencia / Experience

- Ingeniari moduan egin du lan, ingurumen arloan bereziki, eta Iberiar penintsulan alderik alde bidaiatuz eta berau ondo ezagutuz
- Bere aitak, Juan Goitiak, euskeraren jatorriari buruzko liburu bat idatzi zuen: España ¿Ibera o vasca?, Jabierrek lan horretan lagundu zion, garai horretan lana mekanografiatuz eta bananduz. Zaletasun hori jarraituz baina berezko bidea eginez, Jabierrek Iberiar penintsulako toponimoak sakon aztertu ditu azken lau hamarkadetan.
- Azterketa toponimikoak egiteko, besteak beste, Espainiako Institutu Geografikoak duen datutegi erraldoi batean (1.300.000tik gora toponimo) egiten ditu bilaketak eta, GIS programa baten laguntzaz (bilaketa geografikorako aplikazioa), antzekotasunak dituzten terminoen multzoak automatikoki egiten ditu.

c) Argitalpenak / Publicaciones / Publications

- ADN del Euskera en 1.500 partículas. Liburu honetan euskeraren 1.500 morfema inguru topatu ditu, berezko esanahia duten soinurik txikienak.
- Euskeraren ikuspuntutik Gaztelerazko 2.800 hitzen etimologi proposamenak jasotzen dituen liburua laster argitaratzeko prest.

d) Harremanetarako/ Contacto / Contac

- basanesese61[abildua]hotmail.com

4.2. Laburpena / Resumen / Abstrac

a) Laburpena. Giza harremanen arloko euskerazko eta gaztelera-berben etimologiak

Gaurko hitzaldiak, ze ate joko du? Gure Euskaltzaindia deitutako akademia?... goazen, ba.

Hiztegia da hizkuntza batentzako oinarri nagusietako bat; Euskerak hogeigarren mendearen lehenengoko hamarkada arte ez du eduki herri hiztegi bat, aldameneko hizkuntzek izan dutena lau mende lehenago. Gaztelera eta inguruko beste hizkuntzak Euskeratik elikatu dira eta iñork ez du salatu gertaera hau. Gure mamiñetik hartu dute izen, izenlagun, aditz eta (milaka) sustrai eta erroak. Jabetu dira harrapaturiko berbekin eta gu, bitartean, apal eta lotsaz, ikusi dugu gure berben zerrenda zimelduta, gure aberastasuna galduta eta Euskeraren baliorik aundiena, (ikerketarako giltza)... ahaztuta.

Baina -beste askoren artean-, gure hizkuntzak ahalmen berezi bat dauka edozein hizkuntza ez daukana: berea dela berba pilo bat, “beretik” (ez iñondik) datozela hitzen egiturak eta saiatu ezker, ez dela gaitza haritik hari osoa ateratzea; historiaren aztarnak, oinatzak segitzea, berben jatorria, iturria azaltzeko.

Zoragarria da jakitea zelan antolatzen diren zatikiak, berben hasierak, benetako iturriak asmatzeko...!: Iturri nagusia gu gara.

Azkenengo urteetan, denbora apur bat eman dut Erderaren hemeretzi gaietako hitzen jatorria ikertzen; Ustekaberik aundiena?... “Giza harremanetako” berbek (lan honen bukaeran zerrenda ikusi daiteke), hainbat aldiz biderkatzen dutela beste gaietako berben kopurua. Erantsitako zerrendan hirurehun eta hirurogei berba eskaintzen dira, Euskal iturritik etortzeko probabilitate aundia daukatenak. Berba hauek kenduz, Erdera herren eta elbarri geratuko litzateke gizarte arloko kontzeptuak adierazteko.

“Giza harremanen” kopuruari segitzen diote “Teknikaren gauzak”, “Itsasoa”, “Geografia” eta “Gorputz alorrekoak” edo “Fisiko gaiak”, hauek ere oso ugariak... gero, bitarte luze batera, “Nekazaritza”, “Eraikuntza”, “Erlijioa”, “Jantziak”... gutxiagorekin.

Ondorioa: Gizartearen iraupenerako, gutarteko harremanen arauak, nagusi izan dira tekniken aurretik.

b) Resumen. Etimologías de palabras en euskera y castellano del campo de las relaciones sociales

La terminología es una de las bases de las lenguas. En euskera el uso del diccionario no se popularizó hasta el siglo XX, cuatro siglos más tarde que las lenguas que ha tenido al lado. El Castellano y otras lenguas se han alimentado del Euskera y nadie lo ha denunciado. Han tomado de nuestra lengua nombres, adjetivos, verbos y miles de raíces. Se han quedado con las palabras y nosotros, de mientras, avergonzados, hemos visto cómo iban disminuyendo las palabras dadas por vascas, perdiendo nuestra riqueza y olvidándonos del mayor valor del Euskera (la llave para investigar).

Pero nuestra lengua tiene una capacidad especial que no tienen otras lenguas: que muchas palabras son nuestras y eso se puede descubrir en la estructura de ellas y tirando de ella poco a poco se puede ver. Es cuestión de seguir el trazo de la historia, de los pasos, del origen de las palabras para ir descubriendo cuál es la fuente.

Lo que más resalta es que en el campo de las relaciones humanas la posible procedencia de muchas palabras (en la lista final he puesto 360) podría ser el euskera, cantidad mucho mayor que las otras 17 áreas que componen el Libro de Etimología del Castellano visto desde el Euskera que he finalizado recientemente.

c) Abstrac. Etymology of Basque and Castilian voices used in social relations

One of the basic pillars of languages is the lexicography usually collected in dictionaries; The Basque language has not had "popular dictionaries" well into the twentieth century, while its main neighboring languages have had four centuries before.

Spanish and several other languages, have been nourished by a large number of Basque voices and no one has publicized this fact. From our nucleus have been inspired nouns, adjectives, verbs and thousands of roots. Those languages have taken over this material and we, embarrassed, have seen our lexicography shrink and how it was losing what is perhaps the greatest value of Basque Language, to be a key for research.

The fact is that among other potentials, our language has the ability to analyze words that have been drawn from its elements, capacity that have no other languages and it is not difficult to learn the methods that lead us to "back" following the traces and Historical signs to discover the oldest sources.

It is wonderful to come to understand how the different components of words have been combined over time, of which, in this european environment, the main source is our language.

I have spent some time in the last years analyzing nineteen thematic areas of Spanish to find their roots. The greatest surprise of this work has been that the abundance of voices in the subject of "Social Relations", has been much greater than that in the others. In a list at the end, three hundred and sixty examples are given which have a high probability of being derivates from the Basque. If these voices were dispensed with, Castillian could not be spoken.

The "Social" issues, are followed with lower number of words, by "Technology", "Sea and Navigation", "Physics" ... and at some distance, "Agriculture", "Construction", "Garments" and several others that have much less volume.

Conclusion: For the survival of humanity along centuries seem to have been more important social relations than other seemingly relevant issues.

4.3. Txostena / Ponencia / Communication

Oharra: Testuan Ñ hizkia erabiltzen dut.
Amaierako oharrean azalpena ikusi

a) Jatorria Euskeran eduki dezaketen berbak

Ondoren adibide gisa zerrenda bat jarri dugu. Batzuen azalpenak besteena baino zailagoa badirudi ere, eztabaida sortu nahi dugu eta beste aukera gehiago mahai gainean jarri, bestelako pretentsio barik baina ezta hizkuntzalari kolonizatu asko lez gurea beti bazterrean utzita. Hasi gaitezen:

Ademán. Keiñu bat, muxina zerbait esateko berba barik. Asko dakitenek ziurtatzen dutenez Arabiar hizkuntzan, "al dhaman" dala tratuetan ematen den garantia bat, eta hortik datorrela "ademán". Nik ez dut loturarik ikusten...

Larramendik esan zuen orain 300 urte, “adi eman”etik zetorrela eta horrela da; “ademan” da ulertzera ematea keiñu batekin.

Amago. Egitura faltsua, gauzaren bat egingo dela emanez, egingo. ez denean Akademikoek, Godoeraren “magan” (indarra) diote dela iturri.

Euskerak erantzun askoz hobea du. Ba al dago munduan amarik bere haurra amorrutaz astintzen (joten) duenik?... Ez!. Ba hori izan daiteke “ama-djo”, amaren zigorra, miñik egiten ez duena. “Amadjo” bigunduz, sonoraturaz, “amago” eman du.

Ameno. Maitagarria; gustatzen duena. Katedradunek, Grezieraren “amenion” (hobea) azaltzen dute jatorria, baña “hobeak” konparaketa adierazten du eta “amenok” ez.

Euskeraren “am” erroa (gehienetan, atzizkia), erakartzeko ideia darama; ehundez berba daude Euskeraz eta Gaztelera “ma”-rekin amaitzen dabena: “Am ma”, hurbiltzen zaizuna, “ari ma” aritasuna, aktibidadea dakarrena, “ar ma” arra egiten zaizuna, “do ma”, zerbait egitera bortxatzen duena, “go ma” bote egiñez, gorantz igoten duena, “ie ma” (yema) iragana egiten duena, “or ma”, gorantz jasoten dena, “ci ma” (zii ma) punta egiten duena.... Hortik, “am ena”, erakartzen duena, zerbaitean “ganatzen” duena da (ganar: ganinean geratu) eta Erderak, maskulinoa egiteko, “am eno” atera du.

Arrogante. Españako Akademiak dio “arrogar”etik (latinez arrogare-tik) datorrela (jabetu, eskuratu alegia), baina ez dauka zerikusirik...

Erderazko hitz ugarik erabilitako izenlagunak, gure “harrotik” etor daitezke. Zer da harro?... Puztua, haizez betea, estali aurretik hegazti eta beste animali askoren artean arren jarraibide bat, emeei beraien itxura gehitua erakusteko: “Arrogante”, “Harro ande” : “Todo aire” liteke.



Irudian, lar-oilar bat puztuta bere estaiaketako tokian (“leka”) emeak erakartzeko.

Asesino. Erailtzen duena. Adierazpen ofizialaren arabera Arabiar “ashsh-ashin” hitzetik dator, hau da “hatxis erretzaileen taldea” eta umetarik hori sartu digute buruan... Baina arabiarrek, zelan deitzen diote hiltzailei?... “Qattal, qattalen”. Horrela trikimailuetan gaituzte “jakitunek”... Hatxis erre beharrik ez dago behar txar bat egiteko.

Iduri denez, “asez eina” tik etor liteke. Norbait bekaiñetaraiño dagoenean...

Autor. Egile erabiltzen da gaur egun, baina egile egokiagoa da lan fisikoentzako; “autor”, horrela, hobea da ekintza edo gertaerentzako (aitortu).

Zer diosku akademiak?... Latinen “augere-tik” datorrela. “Augere”, bultzatzea da, eta baliozkoa bada ere, gure “aho tu”, “confesar”, hobeto dator. Oso arrunta da ahots edo kontsonante bien leku trukatzeko, “metatesia” deitutako, ahoskin aldaketa baten bidez: “Aho tu”, “ahu to”.

Bizarro. Italiaraz agertu zelako lehen aldiz berba hau idatzita, Italiarari ezartzen diote jatorria besterik gabe, Euskeratik aldentuta, “bizarro” izatea ez daukalako bizarrarekin zerikusirik.

Baña Baltasar Etxabek arrazoia zeukan; bizi-harrotik letorke “pleno de vida, vivaz”.

Bobo. Bai Euskeraz nahiz Erderaz, berba hau sarritan erabilitakoen artean behar bada lehena da... Jakitunek mila maña bitartez heltzen dira bukaera baregarri batera, Latinezko “balbus”, (totela), tartalotik datorrela.

Hain ganorabakoak ziren gure abazarrak “bobotasuna” eta “toteltasuna” nahasteko? “Bo” da “bai” esateko beste berba bat eta bi aldiz esanda, “bo-bo”, bere baliokidea “baietz” da, hau da, “bai-bai” esatea legez. “Boboak”, lehen eta orain, denari baietz esaten diotenak izan daitezke; eztabaida bat edukiteko gauza ez direnak.

Bravo. Berba hau mundu guztian zabaldu da, esanahi bakun batez: Arpegia ematen duena, ausarta, aupadazalea...

Gehien jakin behar zutenek, akademikoek, latinezko “pravus” (gaiztoa, ankerra) edo “barbarus-etik” nahi dute ikusi jatorria, baina “brabo” berez ez da “gaiztoa”, ez “basatia”.

“Barra”, antzina, arren sexu parte ikusgarria izan da, nabaritzen den parte, adibidez, “barrabilak”. Hortik, “barra bo”, potroak baieztatzea da, Erderaz “si hay cojones” antzekoa.

Club. Gizarte harremanen gune berezia, txokoa, ez dakite nondik datorren.

Britainiarrek diote “klub” eskumakil bat dela eta germaniarrek, “klubb”, harri edo egur pilo bat... Bietatik batek ere ez dauka zerikusirik “kluben” ideiarekin.

Euskeraz, alderantziz, “kluka”, artzainen edo ehiztarien batzarra da. “K”, sarritan, “G” bihurtzen da eta “G”, denboraz, “B”; horrela “kluba” darama batzarren ideia. Arbola baten azpian edo eraikin baten txokoan, partaideen batzarra.



Picos de Europako artzain taldea

Cochino. Euskeraz izen ugariduna duen abere bat badago, hori txerria da: *txarri, txerri, zerdo, gorrino, marrano, kotxino, urde...* “puerco” ezik. Gure katedradunek Ameriketako Nautlh hizkuntzakotzat jotzen dute, han, “cochini-k”, “loti” esan nahi duelako... eta txerriak lo asko egiten duten lez... Katedra bat horrelako miragarriak sortzeko...!

“Kutsadura”, “lohikeria” ei da izen honen ama: “Kutsa eiño”, bere ingurua, bere korta zikintzen duena, hori da “kutsiño” eta horrek eman du “cochino”.

Compañía. Latiñaren menpekoek aurpegi gogorra daukate eta iñolako lotsa barik, botatzen dute airera euren asmakizunak. “Compañía”, ogia elkarrekin jatetik datorrela “cum” eta “panis” loturatik.

Adituen proposamenak ez du begiratzen historiaurreko denboretara, oraingoari baizik, (armaden eta ejerzitoen denboretara), baina “idea nagusia”, zaharragoa izan behar da;

gizartea ehundez mila urte irauteko "konpañiaren" beharra, egunero erabili behar du, ziur. "Kun pa nia", hiru berba, hiru ideia: "Kun" (Latiñaren "cunnus" eta Erderaren "coño", "kun"en ilobak dira), kuntzea, antzina "sexuaren" ekintza zela dirudi, "pa", musuketa eta "nia", akordua, baimena (con la "be-nia"). Kunpania dirudi ar eta emeen arteko akordua elkarrekin joateko. Joan-ibilia. Bizia irauteko.

Cuerdo: Bere zentzua orakatuta daukana. Zer dio Españako akademiak? Bihotzetik datorrela, hau da, Latiñaren "cordus-etik", alde batera itxita Grezieraren "logiki", Sanskritoaren "seniti" eta inguruetakoa hainbat hizkuntzen "seni", "senti", "sanidade", "salute", "sensus"...

Euskera berriro ahaztuta: "Ku" da gure eztabaiden erro bat eta "erta, erda", erditako gunea; horrela, "ku erdá", galderaren esanahia haxe litzateke: "ba ahal dago (zentzuaren) erdigunean?" "Kuerda" femeninoa ematen duen lez, Erderak "kuerdo" asmatu du. Besterik ez.

Desertor. Armada edo talde batetik ihes egiten duena. Akademiak bere sasiko lanari jarraituz, nahi dute Latinaren "sero" (gure "sare-tik" ekarri, "serto" partizipioa izanez eta "des serto", sarea desegin... Parekatzen dute sarea uztea, desertore baten ihesaz...

Euskerak erantzun fiñagoa dauka: "Ez erta", erdigunetik, arauetatik irtetea da. "Ezerta" da akordutik kanpo doana. Erderak, beti bezala, maskulinoaren forma emateko, "a", "o" bihurtu da eta "d" bat aurretik jarrita, "deserto" eta ordezkioak sortu du.

Droga. Zorabiatzen, burugabetzen gaituzten produktuak. Ofizialki, Andaluziako Arabieretik "hatruka", berbalapiko, ahoberoa..., dator, drogak hartzen duenak horrela berba egiten duelako. Seriotasunik hiztegietan?... gutxi.

Euskeraz, "dord" da bibratu, dardakatu, eta "ga" atzizki kentzalea. "Dord ga", erdiko "d" galduz eta metatesi bitartez, "dorga, droga" eman bide du. Droga, dardara, ikara kentzen duena.

Dueño. Egunero erabiltzen den berba bat badago, hau da "dueño". Guk, jabetasuna galduz, asmatu ditugu ordezkioak: Nagusi, jabe, etxeko...

Latinzaleek, "dominus" hartuz eta letrak zapalduz, tximurtuz, zatituz, ureztatuz, letrak kenduz eta jarriz ibili dira "dueño" eman arte.

Zergatik ez dute joten Euskera dakitenei galdetzeko?... "Du" "eduki-aren" erdiko erroa da, mamiña. "Du ena" (duena) da zerbaiten jabea edo daramana; berba hau, ahosabaituta egin du "dueña", eta Erdera, beti bezala, maskulinoa egiteko, "dueño" asmatu du. Eta "dueño" geratu da nagusi.

Hidalgo. Norbait berezia, nabarmendua. Akademikoak diote "fillo de algo"tik datorrela eta aldatu dela horrenbeste, denboraren ihesiaz. "Fillo" semea dogu eta "algo"n ikusten dabe garrantzitsua... Aldakuntza haundiegi eta teoria baño, ameskeria...

Edozein baserritarrek badaki nahasitako indabak iralgitzea (bahetu) zer den: haundiak eta txikiak sailkatzea; bi zorroetan jartzea. Iralgitzeak eman du "iralgo" eta "r", sarritan, "d" bihurtzen den lez, hara gure "Hidalgo". Akademiko ipurterreek "h" hori jarri diote, "fillo"tik datorrela sinistuz.

Honesto. Zintzoa, leiala... Hiztegietan, latiñaren "honestias"etik... Eta "honestias" nondik dator? "hon", "bon-etik" hasten diren berbak asko dira, gure "on-etik" datozenak. "On" da jatorrian, zuzena, arteza eta egokiaren erroa. Aurkakoa, "ar", gero "txar" eman duena.

Humilde. Apala, xumea, umila. Beste askotan bezala, Latiñari ezarten diote, "humillis", "humus", lurraren mamiña zertan heriotzaren ostean urritzen gara...

Olerki, eresi gehiegi dago adierazi horretan. Euskeraren “um” da adorea, kemena, hortik, “umore” eta “umilla”; egoeraren bi ertz, gorengoa (pozik, alaiz gaudenean) eta beheengoa (jausialdietan).

Inocente. Errubakoa, koitadua. Liburuetan dio latiniaren “nocere”, kalte egitetik datorrela.

Bide luzea, laburrago bat egonez... Gure “iñu senti”, bularretako umearen instintua, izakera; hobeto azaltzen du esangura.

Lacayo. Morroi txarra, gaiztoa, kalterako prest dagoena... Zorabiatzen dira akademikoak zokomiratzen han eta hemen berba horri gurasoak emateko Provenzara doaz, han, “lecai” gozozalea dela ta, lakaioak, (behar bada) ere direlako. Edo Arabiarra, “al kalia”, zikiña... Azken baten Latiñera, “lancea”ri emanez, antza denez, lakaioak kalteak egiteko, lantzak eramaten zituztelako...

Hain erreza denean ikustea gure “lak, laka”, txartasuna, eta “ari”, ekintasuna lotuz, “lakaria” sortzen dela eta erdaldunek maskulinoa emateko, “lakario” eta laburtuz, “lakaio”ra heldu gara.

Ladrón. Lapurra, ostuten duena. Ez dago batere argi latiniaren “latro latronis”etik datorrela, “latro” horiek ez zirelako lapurrak, armadetako hornitzailek baizik.

Lardoi Euskeraz, jauntxokeri zale bat da, behar bada, aldamenekoari gauzak edo eskubideak kentzen dizkiona. Lardoi, metatesiaren bidez “ladroi” ematen du eta soberan dakigunez, “oi”, “on” bihurtzen dela, “ladrón” emateko.

Lego. Ordenatubako prailea. Gaur egun, hori ulertzen dugu lego entzuten dugunean, baña dirudi legoa jatorriz ez zela erlijioaren zerbitzale bat bakarrik, edozein lanetako heldubako partaideen egoera bat baizik.

Akademiak dio Grezieraren “laikos”etik (herritar bat) datorrela, baña Euskerak beste ekarpen bat dauka: “Le”, galdutako erroa da, baña mila leketan dagoena, agintzaren ardatz gunea da (legea...) eta “ga” atzizki bat, kenketaren ideia daramana. Horrela, “le ga” da agintzeko baimenik ez daukana. Ez da nagusietako bat. Erderak, maskulinoa lortzeko, “lego” sortu du.

Lerdo. Nazkagarria. Jakitunak iturri bat seinatzeko zorabiatzen dira: Frantsesaren “lourd” (astuna), Latiñaren “lentus” (geldia) edo “loridus” (goibela), Grezieraren “loridus” (jibatua)...

Erretxina biltzen ibili garenok, badakigu “lerra”, piñuen emaitza likitsua dela. Lerdoen ahotik agertzen den adurren antzekoa; hortik, “lerr du”, “el que babea”.

Loco. Eroa, buru galduta daukana. Berba honekin mendeak daramatzate jakitunek bere jatorria atera eziñik. Batzuek, Italiaren ikusten dute iturria, “locco” mozoliñoa delako; beste batzuek, Arabieran “lawka”, andre tentela, edo latiniaren “luskus”, begi okerdunak...

17. mendean, Euskeraren etsai famatu batek, Covarrubias apaizak, seiñalatu zuen gure hizketan, “loko”, gauza askea, lotubakoa zela... Eta artez egoan, horrela da, eta. Loka, lokea da berotan dagoen oiloa (ku lokea eta “clueka” eman zuena), lotu eziña, eroak bezala. Gaztelerak, maskulinoa egiteko, “loco” asmatu zuen.

Marrano. Txerrien izenetatik bat. Filologoek uste dute, Arabieraren “muharran-etik” datorrela; debekatua, galarazia, musulmanek ezin dutelako txerrikirik jan. Edo Hebraieratik: “marr”, mingotz eta “anus”, bortxatu...

Ba al dago Euskal Herrian lau urteko umerik, marrak egitea zer den ez dakienik? Basurdeek, umetan, gorputza marrez beterik daramate: Marrak, barrak, margo ezberdiñen lerroak dira.



Mequetrefe. Arlotea. Gehienetan bezala, jakitunak galdurik dabilta. Larregi jakitea sarritan kaltegarria da; horrela, nahasten dira. Greziera eta Portugesa, “moikos” ezkontza-hausle eta “trefo”, maltzurra, “moikotrefo” mamua sortzeko... Edo Arabierara jotzen dute: “mug xatrif”, harroputza, zerbait topatzeko.

Joan gaituz Euskerara eta “neketrebe”ra; hor daukaguz osagai guztiak, eskastasuna eta trebetasuna. “Mequetrefe” da, den baño gehiago dela uste duena.

Mezquino. Zekena. Katedradunak, Babiloniarraño dihoaz. Han topatu dute “mushkenu”, jauregi-tako zerbitzaria, arabiarrek txirutzat hartu zutena. Edo Judeara eta han, “skn” soinua, lotutea denez eta antzinako judeoak artzainak ziren lez, lotzen zen, geratzen zen artzaina, ardi gabekoa edo txiroa zen...

Mizkeria, “müs-etik” etor liteke, baliobako gauza; “ki”, zertaz eginda dago eta “ena”, genitiboa, elkarrekin egin dute “mis ki na” eta erdel-dunen maskulinoa, “miskino” eta mezquino.

Moderno. Egungoa. Nork esango luke moderno Euskeraz dala? Ba hori dirudi. Behar bada, zentzu bako adieraziak ohi direnak hiztegi eta liburuetan. Diote “modus ernus” dela giltza, non “modus” da neurria eta “ernus”, harremanetako atzizkia... “neurritakoa”...

Modu, gure Euskeraz, “era” da; zerbait egiteko bidea da eta “erne” da bizia, indarrez, gogoarekin egiña. “modu erne” hartu da ohitura berrituz, antzinakoa hobetzen duena.

Mozo. Mozo eta mutil, bat dira, “motz ile”, ilea moztuta daukan mutikoa. Lehengo aldietan dirudi gizon heldua izan arte, gazteak eramaten zutela ilea labor, beraien egoera urrundik azaltzeko. Galizieraz “rapaz”, horixe da, ile moztu duen mutikoa.

Zer dioskue kulturako eragileek?... “Mustus”, muztio, mostu, mahatsaren zukuak eman diola izena, muztioa oraindik ardoa ez delako, “mozo”, gizona ez den moduan.

Necio. Leloa zentzu edo zuzentasun barik, berbetea edo portaera eskasa daukana. Nondik datorrela diote? “Scire”, jakitea delako Latiñean eta “non”, ezetza; orduan, “non scire” da ezjakiña eta aldatzean “nescire” eta “necio” bihurtu dela.

Euskera zaharrean, “ne” ezetza zen (negatiboa) egoera eta “zio” zergatia azaltzeko atzizkia, orduan ezer jarri edo kendu barik, “ne zio” da zerbaiten ardura falta zaiona, zentzuari aipatzen.

Ogro. Mamu haurjalea. Hiztegi nagusian, akademiako gidoian, “orcus” inpernuko eta hilen jaungoikotik datorrela da azalpenaren ardatza.

Gure idea da “og”, gose ase eziña eta “oro”, guztitik datorrela “og oro” eta segidan esanda, “ogro” ematen du.

Pelele. Eritzibakoa. Kontuan hartzen ez dena. Ofizialki?... Ez daukate azalpenik; bere jatorria ez dakite.

Gure ustez, “pela”, erritmobako, igi-neurribako modua, eta “ela”, elea, hizkera, eta alkarrekin “pela ela” eman dute eta sarritan gertatzen den metatesiaren bitartez, “pelelea”, zentzu barik berba egiten duena.

Pelma. Astuna, aspergarria... Harri mota batzuen izena (Grezieraz), “pegmatita” da. Harri horiek beira haundiak dauzkate eta irudi denez, jakitunek harremanen bat ikusten dute latiniaren “pegmatum” eta Erderaren “pelmazo”ren artean. Gero, “pelmazo” gehituzat harturik, “pelma” geratu da.

Lehen esan dugu “pela” erritmo bako berbetea dela eta dakigunez, “ma”, atzizki nagusi bat da, sortzeko, egiteko ideia daramana; horrela “pela ma” da norbait haritik, erritmotik ateratzen gaituena.

Persona. Gutariko edozein, norbera. Umetarik entzun dugu latiniaren “per sonare”, halako bozgarailu, antzerkiko aktoreak eramaten zuena Erroman, eman ziola izena pertsonaiari eta – hedatuz- pertsonari. Edo, baita, Greziar “prosopon”, maskaratik balitekeela.

Bata zein bestea dira barregarriak argi pentsatzen badugu: Mila eta mila urte igaro beharko zuten “pertsonentzako” izen barik olerkiak ekarri arte? Euskeraz, “giz on” esaten den moduan, “bertz ona” dirudi eman duela pertsonari izena. Bide hau ez dago urrun berendiatik (mengano)...

Pirata. Itsasoko lapurra. Grezieratik datorrela diote; “peirates” dira esperimenduak egiten dituztenak eta gure gidarientzako piratak horretarako dijoaz itsaso zabalera, “ia zer gertatzen den ikusteko”.

Ez du zentzu handirik. Itsasoa toki serioa da eta bertara joaten zirenak, arrantzatzeko, gerrarako edo merkatal aginduekin joaten ziren... Piratak ezik! Piratek ez zuten eramaten norabide edo errunbo bat... egoten ziren biraka biraka, norbaitekin topatu arte. Gure ustez, hortik dator izena: “Bira eta” zuzenbide barik dijoana.

Ramera. Putea, emagaldua. Erderaren jakindunak ez dakite nora jo izen honen iturria emateko, eta sasietatik joanez, dioskue, abarren ganean (edo abarren artean) egiten zutela euren lana, eta hortik dala...

Arrak, gizonezkoak gara eta irudi denez, andre triste honek sasoi baten estimatuak ziren arregandik: “arra mera” hori dio; “mer” dugu erro nagusitako bat, bere esanahia: balorezkoa, merezi duena. Errazagoa ezin.

Socio. Kidea, partaide, laguna, gurekin zerbaitetan dagoena. Berba hau bakarrik dago Espainako hizkuntzetan. Beste gehienetan “partner” eta horren aldaerak dira nagusi. Baña bere aldagai bat “sociedad, society, sociedade...” hedatu da mundu guztian. Nondik dator socio? Katedradunek errez daukate Latiniaren atea joz eta “socius” topa idazki zaharren baten, baña, idazki batean egoteak ziurtatzen du Latinienetik datorrela?

Ez jauna! Julio Pokornik, judu listoa, asmatutako Indoeuropar hizkuntza bete zuen milaka erroz. Haietariko bat, “sek” (gure segiren dirudiena) diote eman zuela “socius”.

Nire ustez, harri aroan eta gaur egun, elkarteen helburuak ezin dira konparatu. Gaurkoetan elkarte gehienak, diru edo akzioen bidez antolatzen dira eta behar bada, ehundez edo milaka partaidez osatzen dira. Baina antzina taldeak bizpahiru lagunez bakarrik osatuko ziren eta beharbada, batez ere esplorazio eta lekuak aztertzeko izango zen. Partaideak, zozketa batez bereiztuko ziren; luzeena, agintari, bigarrena laguntzaile eta horrela. Zergatik?... zozketaren emaitza jaungoikoak ezartzen zuelako eta horrela, agintariari errespetua ziurtatuta zegoelako.

b) Eraskinak

Ñ letraren erabileraz

“Ñ” bakarrik euskal egiazko eta jatorrizko letra desagertzen ari dela azkenengo hamarkadetan, gure agintariak konplexuz beterik daudelako eta pentsatzen dutelako Erderatik datorrela (alderantziz denean). “Ñ-tik” hasten diren berbak ez badira asko, tartean daukatenak badira eta Toponimian ganera, amaibakoak dira.

“Ñ” galtzea, edo “L”, “ü”, “ae”, “dj”, etab. galtzea, Euskeraren aberastasuna galtzea da. Ez dugu ahaztu behar, Euskera ez dela bakarrik hizkuntza bat, ikerketarako balio handiko tresna ere badela eta ikerketan, gauza txiki bat galtzea, galtzea haundia ekar dezakeela.

c) Euskeratik etor daitezkeen Erderaren gizarte arloko 358 berba

- Abasto, Abolengo, Abucheco, Abuelo, Aburrir, Acicalar, Acosar, Acre, Acudir, Achaque, Adalid, Ademán, Adivino, Adrede, Afán, Aguantar, Aguardar, Aguinaldo, Ahínco, Ahíto, Ajeno, Alarde, Albricias, Alcanzar, Aldea, Alegría, Amago, Amar, Amenazar, Ameno, Angurria, Angustia, Antaño, Antiguo, Apetecer, Apostar, Apuesto, Apurar, Arenga, Arisco, Aristocracia, Armonía, Arrimar, Arrogancia, Arte, Asaz, Asco, Asear, Asesino, Asmar, Aspaviento, Atalaya, Aterir, Atinar, Atorrante, Atosigar, Atreverse, Atroz, AuparAustero, Autor, Avisar, Ayna, Azar, Azuzar
- Babieca, Bachiller, Baile, Balada, Banda, Barrabas, Barragán, Barruntar, Bastardo, Basura, Befar, Bellaco, Beso, Bestia, Birria, Bizarro, Blasón, Bobo, Boda, Borde, Bostezar, Bravo, Brega, Bruja, Brusco, Bula, Burdel
- Cabildo, Callar, Canon, Carcajada, Cariño, Caso, Castigo, Causa, Ceder, Celta, Cena, Cicatería, Cilicio, Club, Cochino, Compañía, Concubina, Copla, Coraje, Cosa, Cosquilla, Crimen, Crisis, Cuajo, Cucaña, Cuerdo, Currelo, Chanza, Chico, Chitón, Chusma
- Dama, Danza, Daño, Debalde, Dehesa, Dejar, Demora, Denostar, Denuedo, Derrocar, Derrumbar, Desahuciar, Desertar, Despacio, Despachar, Dicha, Divisa, Divisar, Doctor, Domar, Don, Doncel, Dragón, Droga, Duchá, Duelo, Duende, Dueño
- Elegía, Elegir, Embadurnar, Embelesar, Embuste, Empatar, Ende, Enfado, Engaño, Enojo, Ensayar, Entender, Época, Error, Escarmiento, Esclavo, Escolta, Escuela, Escusa, Espantar, Espía, Estampida, Estilo, Estrenar, Examen, Exigir, Éxito
- Faena, Fama, Familia, Fandango, Farsa, Frustración, Gala, Galante, Gamberro, Gandul, Gente, Gigante, Glotón, Goza, Gozo, Grado, Grima, Gringo, Guapo, Guarro, Guiño
- Halago, Hembra, Hermoso, Hidalguía, Hinchá, Homenaje, Honesto, Honra, Hostigar, Humano, Humilde, Hurtar
- Idea, Imbécil, Inocente, Inopia, Inquina, Intención, Irrisorio
- Jaleo, Justicia,
- Lacayo, Laca, Ladino, Ladra, Ladrón, Lástima, Lata, Laxo, Lecería, Lego, Lelo, Lma, Lerdo, Ley, Lidia, Listo, Loco
- Madrugar, Maestro, Mando, Manso, Maña, Marrano, Máscara, Mecáchis, Mequetrefe, Merced, Mezquino, Mimo, Miseria, Moderno, Mofar, Mohino, MozoMuchacho, Muñeca, Murria, Mus, Necio, Nene, Niño
- Ogro, Ojalá, Olé, Osadía
- Pachorra, Parecer, Parodia, Parroquia, Patrón, Paz, Pelele, Pelma, Pellizco, Pena, Pensar, Peón, Permanecer, Persona, Pesquisa, Pirata, Pirolo, Posterior, Potra, Premio, Presto, Presumir, Primor, Prisa, Procaz, Prueba,
- Queja
- Ralea, Ramera, Rango, Raza, Rebato, Regalo, Regocijo, Rehén, Rencilla, Rencor, Rescatar, Reverencia, Rey, Reyerta, Riesgo, Ruin, Ruta
- Salario, Sandez, Saña, Sazón, Secta, Sello, Señor, Serio, Sincero, Socio, Socorro, Solaz, Sucio, Susto
- Talante, Tango, Temperamento, Tema, Temer, Terco, Test, Timo, Tino, Tirria, Títere, Título, Tocayo, Tonto, Tortura, Tosco, Trabajo, Trama, Tranquilo, Triste, Tu, Tutor
- Ufano, Vago, Valiente, Vecino, Vergüenza, Vicio
- Zafio, Zambo, Zoco, Zodiaco